

2/2024 UDALEKO OSOKO BILKURA

2024KO OTSAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2024ko otsailaren 27an, arratsaldeko 19:00etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2024ko urtarrilaren 30ean egindako Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

2.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ANOETAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, MENDEKOTASUN PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEN DITUZTEN HERRITARREK JASOTAKO ZAINTZAREN KALITATEAREN ALDIKO JARRAIPENA EGITEKOA, ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Anoetako Udalaren arteko hitzarmen honen xedea dela mendekotasuneko prestazio



ANOETAKO
UDALA

ekonomikoen hartzaile diren titularrek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko baldintzak zehaztea, 24/2017 Foru Dekretuak, abenduaren 12koak, 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, hitzarmen honen bidez, Anoetako Udalaren esku uzten ditu udalerrian erroldatutako mendekotasuneko prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten titularrek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko lanak, horren truke, egindako eta behar bezala erregistratutako jarraipen-jarduera bakoitzeko hitzarmenean bertan araututako foru-finantzaketaren zenbateko bat ordaintzeko konpromisoa hartuz.

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak helarazitako hitzarmen-proposamenaren edukiaren gaineko azalpena eman du, baita hitzarmena sinatzeko eta formalizatzeko eman beharreko pausoen gainekoa ere.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Anoetako Udalaren arteko hitzarmena, mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarrek jasotako zaintzaren kalitatearen aldiko jarraipena egiteko.

BIGARRENA. Konpromisoa hartzea lankidetzaz hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko.

HIRUGARRENA. Alkateari ahalordea ematea hitzarmena eta horren eranskinak sinatzeko.

LAUGARRENA. Gipuzkoako Foru Aldundiari ebazpen hau jakinaraztea.

3.- AGINAZPI HERRI-BIDEKO ZATI BATEN KALIFIKAZIO JURIDIKOAREN ALDAKETA (JABARI PUBLIKOKO ONDASUN IZATETIK ONDARE-ONDASUN IZATERA), ONDOREN TRUKATU AHAL IZATEKO, BEHIN-BEHINEAN ONARTZEKO PROPOSAMENA.

2022ko maiatzaren 30ean, Udalbatzak, ohiko Osoko Bilkuran, “Anoetako herri-bideen inbentarioa” onetsi zuen.

2023ko uztailaren 26an eta 1026 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Josu Zumeta Mayoze eskaera aurkeztu zuen Anoetako Udalean, Aginazpi Baserriaren atari aurretik pasatzen den bidea etxearen goiko aldeko sagastitik desbideratzea eskatuz.

2024ko urtarrilaren 17an Ingurumen Saileko langileak txostena egin zuen eta bertan, aurkeztutako eskaeraren arrazoitzat, honakoa jasotzen zuen:

“...

Eskaera egitearen arrazoi nagusia gaur egungo bidearen erabileran eta honek sortzen dituen ondorioetan dago. Izan ere, Alkizarako doan mendi-bidea izaki, aisialdiari lotuta, jende asko ibiltzen da oinez, korrika nahiz bizikletaz. Gaur egungo bidea

etxearen atari aurretik pasatzen da eta honek zaildu egiten du elkarbizitza, eta animalien presentziak, baita arriskua handitu ere.

...”.

Aginazpi Baserrira ematen duen bide publikoaren datuak ondorengoak dira:

09. AGINAZPI HERRI-BIDEA					
Katastroko erreferentzia	02-021				
Hasiera	8. bidea Axibar				
Amaiera	Alkizako Udalerria, Agina				
Sarbideko eraikina	Aginazpi baserria				
Ezaugarriak	Luzera	Zabalera	Zorua	Egoera	Sailkapena
Hasiera	560 m	3 m	Asfaltoa	Ona	1
Bukaera	123 m	1,5 m	Lurra	Ona	3
Luzera guztira	683 m				
Bidearen egoera	Egoera onean eta lur-zatiaren trazatua nabaria da.				
Bidearen erabilera	Aginazpi baserrira eta lursailletara joateko, baita paseatzeko ere.				

Eskaera aztertuta, eta Ingurumen Saileko langileak egindako txostenarekin bat eginez, ondorioztatzen da jarraitu beharreko prozedura ondorengoa dela: lehenik eta behin, 09. Aginazpi herri-bidea desafektatu behar da; ondoren, interesatuak proposatutako desbideraketa egiteko, beraren titulartasuneko bidearekin permutatu behar da; azkenik, permutan jasotako bidea herri jabarira afektatu behar da.

Interesatuak proposatutako desbideratze-bidea ondorengoa litzateke:

09.1 AGINAZPI ALDAERA					
Katastroko erreferentzia	02-021				
Hasiera	8. bidea Axibar				
Aldaeraren hasiera	9. eta 10. bideen bidegurutzea				
Amaiera	Alkizako Udalerria, Agina				
Sarbideko eraikina					
Ezaugarriak	Luzera	Zabalera	Zorua	Egoera	Sailkapena
Hasiera	335 m	3 m	Asfaltoa	Ona	1
Bukaera	315 m	1,5 m	Lurra	Ona	3
Luzera guztira	650 m				

Bidearen egoera	Egoera onean eta lur-zatiaren trazatua nabaria da.
Bidearen erabilera	Lursailtara joateko, baita paseatzeko ere.
Oharrak	Bide hau, Aginazpi baserritik barrena, Alkizara igarotzeko erabiltzen bazen ere, bidea Aginazpi baserriaren atari aurretik aldentzea erabaki da eta mendebaldeko sagastitik barrena bide eratorri bat onartzea.
Deskribapena	Bide eratorriaren hasieran 9. eta 10. herri-bideen bidegurutzetan hasten da. Bide hau, aurreko bidea bezala, 02-021 lursailean kokatzen da eta Aginazpi baserriaren sagastia zeharkatzen du, berriro ere, Aginaga baserriarekin lotzen duen herri-bidearekin elkartzeko. Honakoak dira bide eratorri berriaren hasieraren eta amaieraren koordenadak: - Hasiera: 43°10'19.21"N / 2°05'05.16"O - Amaiera: 43°10'23.50"N / 2°05'08.61"O

Interesatuak proposatutako permutak ondorengo onurak ditu Anoetako Udalarentzat eta Udalerriarentzat:

- Aginazpi baserrirako atarira doan asfaltozko bidearen mantenua baserriaren jabeen gain geratzen da eta, beraz, Udalak lur-bide horretako lanak soilik egin beharko lituzke (urbideen mantenua, bideko oztopoen garbiketa...), Udalaren gastua gutxiagotuz.

- Herri-bidea baserri ingurutik aldentzeak gutxitu egiten ditu erabiltzaileentzako arriskuak eta elkarbizitza errazten du.

Idazkari Kontu-hartzaileak txostena egin zuen 2024ko urtarrilaren 24an, espedientean zuzendu beharreko zenbait puntu jasota eta, behin horiek konponduta, ondorengo ebazpen-proposamena egin zuen 2024ko otsailaren 21ean:

“...

LEHENA. *Hasierako onespina ematea Aginazpi izeneko bide publikoaren kalifikazio juridikoaren aldetari, espedientean proposatutako desbideratzeari dagokion zatian, zati hori jabari publikoko ondasun izatetik ondare-ondasun izatera pasatuz.*

BIGARRENA. *Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarki-oholean argitaratzea hilabeteko epean, epe horretan egoki iritzitako alegazioak aurkez daitezten.*

Era berean, espedientea interesdunen eskura egongo da udal honen egoitza elektronikoan.

...”.

Halaber, 2024ko otsailaren 21eko ebazpen-proposamen-txostenean, honakoa jasotzen du:

“...

Udalbatzak hasierako onarpena eman beharko dio, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Erakunde Lokalen Ondasunen Araudiko 8. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.l) eta 47.2.n) artikuluetan ezarritakoaren arabera, hau da, Korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENA. Hasierako onespena ematea Aginazpi izeneko bide publikoaren kalifikazio juridikoaren aldatetari, espedientean proposatutako desbideratzeari dagokion zatian, zati hori jabari publikoko ondasun izatetik ondare-ondasun izatera pasatuz.

BIGARRENA. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea hilabeteko epean, epe horretan egoki iritzitako alegazioak aurkez daitezten.

Era berean, espedientea interesdunen eskura egongo da udal honen egoitza elektronikoan.

4.- 2023RAKO ESTATUKO AURREKONTU OROKORREI BURUZKO ABENDUAREN 23KO 31/2022 LEGEAREN 19.BI.2.B) ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZUKO LANGILEEN ORDAINSARIEN % 0,5EKO IGOERA OSAGARRIA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza eman dio Idazkariari eta honek azaldu du Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19 Bi 2 b) artikulua honako hau xedatzen duela:

"...

2. Halaber, hala badagokio, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, honako igoera hauek aplikatuko dira, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bi kasuetan:

(...)

b) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izandako bilakaerari lotutako gehikuntza.

BPG nominalaren igoerak Gobernuak aurrekontuen lege hau egitearekin batera aurkeztutako koadro makroekonomikoan zenbatetsitakoa berdindu edo gaindituko balu, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da.

Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko BPGren aurrerapendatuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministroen Kontseiluaren erabaki baten bidez. Erabaki hori BOEn argitaratuko da.

...".

Agindu horretan xedatutakoaren arabera, 2024ko urtarrilaren 30ean, Estatistikako Institutu Nazionalak Barne Produktu Gordin (BPG) nominalaren bilakaeraren 2023ko datua argitaratu zuen, lege horretako 19. Bi 2 b) artikuluan



ANOETAKO
UDALA

jasotakoa bete zelarik, hau da, % 0,5eko ordainsari-igoera osagarria izateko nahitaezko baldintza, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Era berean, eta Legeak berak bere artikuluetan jasotzen duen bezala, Ministroen Kontseiluak, 2024ko otsailaren 6an egindako bilkuran, gehikuntza osagarri hori aplikatzea erabaki zuen, eta erabaki hori 2024ko otsailaren 8ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori guztia ikusita, eta EUDELEk euskal udalei emandako gomendioarekin bat etorritik, proposatzen da onartzea 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2. B) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria. Igoera hori 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa aztertuta, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2. B) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria.

BIGARRENA. Aplikatzea igoera hori 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

II. GOBERNU ORGANEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

5.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2024ko urtarrilaren 16tik otsailaren 15era bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du.

EAJ taldeko bozeramaileak, Nuria Carbonell Mirandak, ondorengo galderak egin ditu: batetik, batetik, 2024ko otsailaren 8ko 76 zenbakidun dekretuari dagokionez (2024-KALD-000003-00 kredituak aldatzeko espediente eabazten duena), 2024ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren gainean egindako kredituak aldatzeko aurreko bi espedientei buruzko informazioa eskatu du; eta, bestetik, otsailaren 14ko 86 zenbakidun dekretuari dagokionez (kutxa finkoko aurrerakinak baimentzen dituen), 2023ko azaroaren 23an Osoko Bilkurak onartutako Aurrekontua Betearazteko Arauei buruz galdetu du. Idazkariak erantzun dio Aurrekontua Betearazteko Arauak 2024ko

ekitaldirako Aurrekontu Orokorrarekin batera onartu zirela, ekitaldi guztietan bezala, eta ez dutela inolako aldaketarik izan 2021eko ekitalditik.

Azalpen horiek emanda, zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

6.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

036. DEKRETUA		
2024.01.18.		
Hartzekodunak	IFZ / IFK	
LANDARRI SLU	B20531448	
Prozedura		
Faktura kontratu txikietan onartzea		
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
988031	2023.12.19.	1.265,08 €
Laburpena		
Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko urtarrilaren 18an egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:		
Ordainketa-agindua ez dela onargarria, ez baitago gastu horiei estaldura ematen dien kontratazio-prozedurarik; izan ere, azkeneko kontratu txiki "irregularra" (urtez urte kontratu txikien bidez kontratatzen etorri baita) 2021eko abenduaren 31n bukatu zen eta ez da beste kontraturik egin, are gutxiago lizitaziora atera.		

037. DEKRETUA		
2024.01.18.		
Hartzekodunak	IFZ / IFK	
CALEFACCIÓN TARSAT, S.L.	B20765665	
Prozedura		
Faktura kontratu txikietan onartzea		
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
1	2023.12.31.	496,10 €
Laburpena		
Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko urtarrilaren 18an egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:		

- Ordainketa-agindua ez da onargarria, ez baitago gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozeduraririk;

- Kiroldagiko ur bero eta berokuntza sistemen mantenu-zerbitzua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;

CALEFACCIÓN TARSAT, S.L. enpresarekin kontratatutako zerbitzuak ez du babesten duen ez kontratazio-espedienterik ez dokumenturik; Anoetako Udalak 2014ko urtarrilaren 1ean sinatu zuen Calefacción Tarsat, S.L. enpresarekin eta, horrezkerotik, enpresa berdinak zerbitzu bera ematen jarraitu du, inolako kontratu-oinarririk gabe, eta hilero enpresak helarazitako fakturak iritsi eta ordaindu dira.

Kultur Teknikariak 2022ko maiatzaren 13an egin zuen txostena, non esaten duen “urtero errepikatzen den zerbitzua dela, zerbitzu horren lizitazioa egin beharko litzateke, legeak horrela arautzen du eta”.

063. DEKRETUA

2024.01.31.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.977,80 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2024ko urtarrileko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko urtarrilaren 30ean eragozpeneko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpeneko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

“Gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garcarenaren urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garcarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin”.

064. DEKRETUA

2024.01.31.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.414,66 €

Kontzeptua

Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2024ko urtarrileko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko urtarrilaren 30ean eragozpeneko txostena egin zuen 2023ko ekainaren 16an egindako eragozpeneko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

“I. Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuen luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarrikerik ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuen gehieneko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko

Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragrafoaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espediterearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, galderarik egin gabe.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

7.- SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAZ DEMOKRATIKOAREN (RASD) 48. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Gaurko eguna Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (RASD) 28. urteurrena izanik, EH Bildu alderdiko udal taldeak honako adierazpen instituzionalerako proposamen hau aurkeztu du:

“...

SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAZ DEMOKRATIKOAREN (RASD) 48. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALERAKO PROPOSAMENA

Egun gutxi barru, Saharar Herriak Saharako Estatuaren (SEAD) sorreraren berrogeita zortzigarren urteurrena ospatuko du, askapenerako eta erabateko subiranotasunerako bere sorreraren eta eraikuntzaren faseak arrakastaz gainditu ondoren.

Berrogeita zortzi urte hauetan, Saharar Herriak nortasun nazional propioa sendotzea lortu du sakrifizioei eta batasun nazionalari esker. Saharar guztiak harro sentitu behar dira bere erakunde nazionalen funtzionamenduaz, exiloaren baldintza gogorak eta baliabiderik eza gorabehera.

Saharar Herria inoiz baino lotuago dago autodeterminaziorako eta independentziarako dituen eskubide legitimoak, eta Marokoren aurkako borrokarekin jarraituko du, potentzia okupatzailea baita, Mendebaldeko Saharako errepresioaren eta baliabide naturalen espoliazioaren arduraduna.

Europar Batasunaren eta Marokoren arteko akordioari dagokionez, Luxenburgoren egoitza duen Europako Justizia Auzitegiaren epaiak albiste eta funtsezko aurrerapen gisa hartu zirela egiaztatu da; izan ere, epai horien arabera, "Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararen gainean duen subiranotasuna ez dute onartzen ez Europar Batasunak, ez haren estatu kideek, ezta, oro har, NBEk ere ". Horregatik, beharrezkoa da Espainiak eta Europar Batasunak Fronte Polisarioarekin negoziatzen hastea, merkataritza- eta ekonomia-harreman egokiak ezartzeko.

Horregatik guztiatik,

Berriz ere adierazi nahi dugu ez gaudela ados Espainiako Gobernuko presidenteari Mendebaldeko Saharari buruz egindako erabateko aldaketa historikoarekin.



ANOETAKO
UDALA

ESKATZEN DIEGU Nazio Batuei, lehenbailehen, gatazka honen konponbide justu eta behin betikoa sustatzeko, Saharako Herriaren autodeterminazio-eskubidea gauzatu behar baita amaitu gabeko deskolonizazio-prozesua amaitzeko, erreferendum aske eta gardena eginez.

BERRESTEN dugu Fronte Polisarioa Saharako Herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa dela,

EXIJITZEN diogu Marokori preso politiko eta kontzientzia saharar guztiak berehala aska ditzala, eta bertan behera utz ditzala bere espetxeetako eta Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta giza eskubideen urraketak.

ESKATZEN DUGU Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioak (MINURSO) bere eginkizunak zabaltzea Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta giza eskubideen kontrola eta jarraipena egin dezan.

ESKATZEN DIOGU Espainiako Gobernuari estatus diplomatikoa eman diezaiola Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkariari, Saharako Herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa den aldetik; eta Nazio Batuen Mendebaldeko Saharako Bake Plana betez, konponbide justu eta behin betikoa lortzeko behar diren ekimen politikoak sustatzea.

SALATZEN DUGU Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak espoliatzen dituela.

ESKATZEN DIEGU Mendebaldeko Saharan jarduten duten enpresei errespetu dezatela baliabide naturalen gaineko subiranotasun iraunkorreko eskubidea eta lurralde okupatu bateko baliabide naturalen ustiapenari aplikatu dakizkiokeen nazioarteko zuzenbide humanitarioko arauak.

GOGORATZEN DUGU Marokok ez duela inola ere Mendebaldeko Sahararen gaineko subiranotasunik, eta Europar Batasunak ezin duela akordiorik sinatu Marokorekin Fronte Polisarioaren baimenik gabe. Gainera, EB behartuta dago printzipio horren eta arau horien urraketatik ondorioztatzen den legez kontrako egoera oro salatzea.

IRAGARTZEN DUGU SEAD en aldarrikapenaren 48. urteurrena dela eta, euskal erakunde eta entitateetako ordezkariak Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetara joango direla Saharako Herriaren bidezko borrokarekiko konpromisoa berritzeko.

Onartutako adierazpenak helbide hauetara bidaltzea proposatzen dizuegu:

- a) ESPAINIAKO ERREGE ETXEA Zarzuela jauregia. Pardo errepidea z.g. 28071 Madril
- b) ESPAINIAKO GOBERNUKO LEHENDAKARITZA Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, z/g. 28071 Madril
- c) KANPO ARAZOETAKO, EUROPAR BATASUNEN ETA LANKIDETZAKO MINISTERIOA Plaza del Marqués de Salamanca, 8. 28006 Madril
- d) EUROPAKO BATZORDEA Josep Borrell Fontelles Alto representante de la Unión para Asuntos Exteriores y Política de Seguridad Rue de la Loi. Wetstraat 170. B-1049 Bruxelles/Brussel. Belgique



ANOETAKO
UDALA

e) FRONTE POLISAIORRAREN ESPAINIARAKO ORDEZKARITZA Principe de Vergara kalea, 83, 1.a, 28006 Madril

f) FRONTE POLISARIOAREN EUSKADIKO ORDEZKARITZA Jesus Apellaniz margolaria, 9 - 01008 Vitoria-Gasteiz

...”.

Aurrekoak entzunda, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (RASD) 48. urteurreneko adierazpen instituzionalerako proposamena.

BIGARRENA. Onartutako adierazpena bertan proposatutako helbideetara bidaltzea.

8.- 2024KO MARTXOAREN 8RAKO MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

EH Bildu alderdiko udal taldeak honako mozio proposamen hau aurkeztu du:

“...

Mozioa: 2024ko martxoaren 8a

Zaintzen krisi batean murgilduta gaudela dioten ahotsak aspalditik datoz, eta toki ezberdinetatik. Baina ez dira atzokoak krisi honi erantzun nahi dioten mugimendu eta ekimenak. Hala ere nabarmendu nahi dugu, pasa den Azaroan, Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa ardatz, Euskal Herrian, Greba Feminista Orokorra aitzindaria izan dugula. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eusteko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Diskurtso hutsaletatik, elkarlanerako eta sistema publikoaren defentsarako bideak ezarri eta eraikitzeke garaia da. Gure herrian ere lanketa sakona egin genuen eta bi dimentsiotan ardaztu ziren aldarrikapenak. Alde batetik eremu pribatuan, emakumeek familia eremuan bereziki egindako lan ordaindugabea ikusaraziz eta bestetik feminizatutako eremuetan egindako lan ordaindu prekarioa salatuz.

Argi geratu zen herritar guztien bizitzek ez dutela berdin balio gure herrietan, eta emakumeen gainean erortzen dela zaintzaren lan karga gehiena. Honek dakarren ondorioetako bat, feminismoetatik izendatutako lanaldi bikoitz edo hirukoitzak dira, beste gauza batzuetan emakumeei haien denbora eskaintzeko aukera kenduz, izan lan ordaindua, militantzia politiko soziala etab. Hau da, boterea zentzu zabalean eta gaitasun politikoak sortzen dituzten alor horietan guztietan egoteko aukera murrizten zaie emakumeei. Honen eraginez, denboraren banaketa desparekoak gertatzen jarraitzen dute eta emakumeek zaintzen ematen duten denbora horretan lan hauetatik ardurarik hartzen ez duten gizonen boterea metatzen jarraitzen dute.

Egoera honen kontziente izan behar dugu eta horri erantzungo dioten politika publikoek emakumeek boteretzera ere eraman beharko lukete. Horretarako ezinbestekoa da

Gobernantza Feminista aurrera eramatea. Gobernantza Feminista berdintasun politiketan historikoki kokatua izan da, Berdintasun Planen zutoinetako bat bezala eta honi Gobernu Ona esan zaio. Egiteko moduei, egiten denari baina gehiago begiratzean datza. Demokratizazio prozesu bat da oro har, lehenetasunak definitzeko beste begirada bat; jarduteko eta lan egiteko prozeduretan aldaketa. Gobernantza feministari buruz ari garenean lidergo partekatu eta transformatzaile bati buruz ari gara eta beharrezkoa da ikuspegi feminista txertatzea aurrera eraman nahi dugun prozesu subiranistan.

Garrantzia eman behar diogu publiko eta komunitarioaren arteko harremanei, elkarrekin sortzen diren bidegurutze berri eta ardura partekatuei. Ezin dugu ahaztu komunitatea ez dela norbanakoen batuketa soil bat, lurralde batean bizi diren eta menderakuntza sistemak sortzen dituzten eta bizi dituzten izaki taldeen multzoa baizik. Komuna kudeatzeko erantzun-kidetasuna behar dugu beraz eta horretarako argi izan behar dugu politika bizitzaren eremu guztietan artikulatzen dela. Beraz, zeharlerrotasun erradikal bat martxan jarri behar dugu. Hau da, estruktura estankoak apurtu behar ditugu eta sail ezberdinen artean proiektu konpartituak eraiki eta kudeatu behar ditugu. Beharrian nabarmen eta erronka handi hauen aurrean, gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa eta elkarrizketa guneak bultzatu eta indartuz.

Horregatik guztiagatik, Anoetako Udalak honako hau erabaki du:

- Mugimendu feministarekin batera Herri akordioarekin bat egin eta landutako puntuak espazio partekatuetan aurrera eramatea.
- Berdintasun zein Barne Planen bidez, gobernantza ereduaren inguruan lan egitea eta emakumeen boteretzea sustatzeko bideak ezartzen jarraitzea.
- Euskal Herriko Mugimendu Feministak herrian zein herrialdean bultzatuko duen dinamikarekin bat egitea eta Martxoaren 8ko deialdiak babestea, herritarrei bertaratzeko deia eginez.
- Mugimendu feministak bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko egindako eta egiten duen ekarpena eta lana aitortzea.
- Herriko Zaintzaren diagnostiko eta plana martxan jartzea, Azaroaren 30eko Greba Feministaren inguruko mozioan udalbatzatik pasa eta onartu zen bezala.

...”.

Aurrekoak entzunda, EAJ taldeko bozeramaileak, Nuria Carbonell Mirandak, galdetu du ea zein den mozioak aipatzen duen “Herri akordioa”, eta EH Bildu taldeko zinegotziak, Amaia Urkola Arocenak, erantzun dio herri-akordio hori eragile eta sektore desberdinek eginiko hausnarketatik ateratako akordioa dela, zeinak zaintza sistema publiko komunitario baten beharra eta horren egikaritze bidean eman beharreko pausuak eta aldarrikapenak biltzen dituen.

Planteatutako zalantza argituta, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

BAKARRA. Onartzea 2024ko martxoaren 8rako mozio-proposamena.

GALDE-ERREGUAK

9.- GALDE-ERREGUAK.

EAJ taldeko bozeramaileak, Nuria Carbonell Mirandak, galdetu du, lehenik eta behin, ADIFek Anoetako tren-geltokirako duen obra-proiektuaren egoerari buruz, eta Alkateak erantzun dio, ADIFekin izandako bileraren ondoren, mezu elektronikoko bat bidali ziotela esanez proiektu-proposamen berri bat garatzen ari zirela eta pare bat hilabeteren buruan erantzuna lortuko genuela; beraz, laster erantzuna izango dugula uste du.

Bigarrenik, langileen egutegia zehaztu den galdetu du, eta Alkateak ezetz erantzun dio, oraindik negoziazio-fasean dagoela. Negoziazioa tarte nahikoarekin hasi bazen ere (uztailean), ezinezkoa izan da langileen ordezkariekin akordio batera iristea. Beraz, orain negoziazioa zuzenean langile guztiekin egiten ari da, eta duela bi aste egin da lehenengo bilera bateratua, eta laster beste bat egitea espero da.

Azkenik, gaurko egunean izandako euriteek eta uholdeek eragindako arazoez ere galdetu du, eta Alkateak erantzun dio bai egon direla urak hartutako eremu batzuk, baina konpondu egin direla.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:18tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.